



HONI BURUZKO INFORMAZIO-DOKUMENTUA:

TELEFONIA FINKOKO ERAMANGARRITASUNA EZEZTATZEA

Eramangarritasuna da operadorez aldatzean telefono-zenbakia mantentzeko aukera ematen duen prozesu arautua. Eramangarritasunak berekin dakar erabiltzaileak uzten duen operadorean baja ematea (operadore emailean), eta kontratatzen den operadorean alta egitea (operadore hartzailean).

Eramangarritasuna eskatutakoan, prozesua ezeztatu daiteke. Ezeztatze hori doakoa da erabiltzailearentzat.

Alabaina, kostuak ekar diezazkioke erabiltzaileari ezeztatze horrek, baldin eta, erabiltzailearen alde aurreko baimenez, Euskaltelek zerbitzua instalatu eta eman badu ezeztatzeko dagoen epearen barruan. Idatzizko eskaintzaren arabera dira kostuak; begiratu zein dagozkizun zuri. Nolanahi dela ere, erabiltzaileak itzuli egin behar ditu bere etxean instalatutako Euskaltelen jabetzako ekipak.

Operadore-aldaketa ezeztatzeko eskubideaz baliatzeko, datu hauek eman behar ditu erabiltzaileak: NANA, banku-kontuaren zenbakia edo bezero-kodea, eta eraman behar duen finakoaren zenbakia.

Zerbitzuaren erabiltzaileak edozein unetan ezeztatu ahal izango du eramangarritasuna, eskaera egiten duenetik hasi eta eramangarritasuna gauzatzeko egunaren bezperako ordu jakin bat arte.

Euskaltelek jakin bezain laster eramangarritasuna zer egunetan eta ordutan gauzatu den —hau da, operadore emaileak eramangarritasun-eskaera ontzat emandakoan—, horren berri emango dio erabiltzaileari.

Erabiltzaileak bertan behera utz dezake operadorea aldatzeko eskaria, aipatutako epe horien barruan betiere, bide hauetatik edozein erabiliz:

- ✓ Euskaltelen banaketa-sarean: 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara, astelehenetik ostiralera.
- ✓ Etxeko bezeroek: 1717ra deituz, 9:00etatik 22:00etara, astelehenetik ostiralera.
- ✓ Enpresa merkatuko bezeroek: 1771ra deituz, 9:00etatik 22:00etara, astelehenetik ostiralera.
- ✓ Euskaltelen webguneko formularioa erabiliz: www.euskaltel.com. Onlineko formularioaren bidez egindako ezeztatze-eskariak astelehenetik ostiralera kudeatuko dira, 9:00etatik 22:00etara.